



Arartekoaren 2013ko azaroaren 27ko ebazpena. Horren bidez, gomendioa egin zaio Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroaren jarduketa bati buruz.

Aurrekariak

1. Herritar batek erakunde honetara jo du kexatzera, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroari zuzendutako eskaerari erantzunik eman ez zaiolako; herritar horrek Bizkaiko Karate Federazioaren batzar nagusia osatzen duten klubak estatutuak eguneratzeko datei buruzko argibideak eskatu zituen. Kontatu duenez, eskaera egin zuenetik urtebete igaro zen, erantzunik jaso gabe.
2. Arartekoak kexa helarazi zion Eusko Jaurlaritzako sail horri eta adierazi genion, kexagileak aipatu gertaerak baieztatuz gero, haiek bateraezinak liratekeela herri-administrazioek euretara jotzen duten pertsonen arretaz erantzuteko duten betebeharrarekin. Halaber, adierazi genion, kasu honetan, erantzuna eskatutako datuen eskuragarritasuna arautzen duen araudiaren arabera egokitu eta arazoitu behar litzatekeela.
3. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak emandako erantzunean, gertaeran onartu zituen, baina kirol klubei eta elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuak sartutako aldaketen testuinguruan kokatu zituen, Euskal Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legean diseinatutako kirol elkarten eredu berriaren garapenari lotuta. Adierazi zigutenez, aldaketa horiek direla-eta Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroaren jarduera oso handitu zen, bertan inskribatutako kirol klub eta elkarte guztiek euren estatutuak araudi berrira egokitu behar izan zituztelako.

Sailak adierazitakoaren arabera, Kirol Erakundearen Erregistroko arduradunak telefonoz jakinarazi zion kexagileari, klubak egokitzapenak erregistroak inskribatzeko prozesuan izandako zailtasunak eta atzerapenak zirela-eta, ezinezkoa zela eskatutako informazioa idatziz igortzea eta hala, adierazi zion erregistroaren informazioa Sailaren web orriaren bidez kontsulta zitekeela. Halaber, adierazi digu, bide beretik berretsi zitzaioela Bizkaiko Karate Federazioaren batzar nagusia osatzen duten klubak estatutuen egokitzapenak inskribatuta egon gabe ere, eskaera horri buruzkoa baitzen, haiek erregistroan baja eman ez zuten gero, inskribatuta eta jardunean zeudela. Kexagileak, bestalde, erakunde honi esan dio ez diotela informazio hori hala eman, ez idatziz ez telefonoz.

4. Jasotako erantzuna amaitzeko, honakoa jakinarazi dute *“Edonola ere, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak behar diren neurriak hartu ditu eta aurreikuspenen arabera, Eusko Jaurlaritzako Kirol Erakundearen Erregistroan pilotutako atzerapena urte bukaerarako konpondu ahal izango da. Horri esker, aipatutako erregistroaren funtzioak behar bezala beteko direla bermatuko da.”*





Gogoetak

1. Erakunde ofizialek dauzkaten informazioei dagokienez, herritarrek haiek eskuratzeko eta zabaltzeko duten eskubideari lotuta dago kexa. Hura bermatzeko betebeharra administrazio onerako eskubidetik dator. Aldi berean, informazio publikoa herritarren ondarearen baitakoa da eta eskubide politikoak, hala nola gai publikoetan parte hartzeko eskubidea, erabiltzearen zerbitzura egon behar du.

Erakunde honek eskubide horren eta hari eusten dion araudiaren azterketa xehea egin ahal izan zuen, Gardentasunari eta dokumentazio publikoa eskuratzeko eskubideari buruzko abenduaren 30eko 6/2010 Gomendio orokorrean.

Bestalde, Kirol Erakundeen Erregistroa publikoa da, eta haren eginkizunetako bat behar diren inskribapenak izapidetzea da, edozein pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatuk idatziz eskatuta (Eusko Jaurlaritzako Kirol Elkarte eta Federazioen Erregistroaren antolamendu eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 3ko 94/1990 Dekretuko 11. art.).

2. Eginkizun horiek herritarren kontsulta eta informazio eskaeren aurrean jarduteko betebeharra sortzen diote erregistroari, eta kasu honetan ezin izan zitzaizkion behar bezala erantzun, administrazioak berak onartu legez. Sailak adierazi duenez, arrazoia lan pilaketa izan zen, kirol erakundeen arauketa, haien araubide juridikoa elkarteen araubide orokorrean oinarrituta eratuz, sinpletzeko egokitzapen prozesuaren ondorioz. Hala, eraketari, antolamenduari, funtzionamenduari, azkentzeari eta antzeko kontuei lotutako kontu guztietan, honako arauak erabiltzeko erakunde horiek: kirol klubei eta elkarteei buruzko ekainaren 22ko 163/2010 Dekretuak eta Euskal Kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legea garatzeko gainerako xedapenak, eta elkarteei buruzko araudi orokorrak, kirol xedapen horietan berariaz xedatutakoan. Bestalde, araubide organikoari dagokionez, lehentasunez euren organo eskudunek onartutako euren estatu eta arautegiak aplikatuko zaizkie.
3. Erakunde honen iritziz, gertatutakoaren azalpen arrazoizkoa da, eta Sailak egindako iragarpenak osatzen du. Haren arabera, ikusitako gabezia konpontzeko behar diren neurriak hartuko dira.

Edonola ere, eta ebazpen honetako hirugarren aurrekarian kexugileari telefonoz emandako informazioaren edukari buruz jasotako desadostasuna gorabehera, hark administrazioaren idatzizko erantzuna jasotzeko duen eskubideak badirau, arestian aipatu gomendio orokorrak aipatzen duen araudian xedatutakoaren eta, bereziki, azaroaren 2ko 30/1992 Legeko 37.1 artikulua arabera.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Espediente honek berretsi duenez, herritarrari ez zaio erantzunik eman eta, Euskadiko Kirol Erakundearen Erregistroaren egoera bereziak ikusita ulergarria bada ere, bateraezina da hari legez esleitutako eginkizunak betetzearekin. Sailak erakunde honi emandako erantzunak, edonola ere, administrazioak izandako erantzun eraginkor eta begirunezkoa erakusten du, hura bete ahal izateko behar diren neurri zuzentzaileak hartzeko konpromisoa hartu baitu.

Hori gorabehera, Arartekoaren ustez Sailak idatziz erantzun behar dio kexagileari, erakunde honi igorritako argibideak eta aipatu erregistroak leukakeen eta eskabideari dagokionez garrantzitsua izan litekeen beste edozein emateko.

